

Ezkontzen tren

Garaileak garaile, herria irabazle? Pasa dira hauteskundeak Espainian. Frantzian ere, segituan. Gurean, igualtsu, atoi horiek bultzatuta. Behin-lolako tren zaharrek joandakoan uzten zuten hutsune bera utzi didate hauteskundeok. Gainera, begiaren ninia kiskali dit makina zaharraren kedarrak.

Berriki, erredura bertsua utzi dit abiadura handiko eztabaida batek: Baztarrিকা-Lizarribar, *Berria* egunkariaren inguruan. Gogoratzen? Bizi-bizi jaio zen hura; gatz larri askorik gabe joan da amatatzen.

Eztabaida hark, dilema-tonua hartu zuen azkenera. Alegia: *edo nirekin zaude edo bestearekin*. Hor antzutu da.

Zeren, eta biek balute arrazoia? Alegia, egia balitz Baztarríkak dioena: besteak beste, ETA-rekin akritikoa dela *Berria*? Eta, modu bertsuan egiazkoa balitz Lizarribaren tesia: *Berria* baino irekiagorik ba al da egunkariaren bidegurutzean?

Esango nuke biek dutela arrazoia. Eta handia bakoitzak.

Antza, euskaldunok ez dugu nahikoa *egunkari nazional* bakarrarekin. Hots, ugaritu eta askotariko egin gara euskaradunok, halako moldez ugaritu eta askotariko bihurtu non, ez baikara kabitzen bagoi berean.

Interesgarria litzateke beste norbaitzuek sustatzea beste egunkari nazionalen bat. Eztegu horretarako, zein trenetan helduko dira ezkongaiak?

* * *

Ezkontza-eskubideetan hartu dugu erronka eskuartean *ttakun*kideok azken hamabostaldian, homosexualen eskubideez aritzeko. Une batez, filosofia eta etika-gai irekietatik ihesi, gizatalde jakin bateko lagunaren eskubideen geltokian geratu da gure bidaia.

Juanjok dio: homosexualok ezin ezkondu gintezkeenean justua al zen heterosexualen ezkontza? Urrek dio: moralki onargarria delako ezkontzen ote dira gaur homosexualak, ala *lobby* indartsua bihurtu direlako?



J. I. Basterrretxea

Olsagarre

Apalategi

Nik uste, agenda sozialera egin duelako jauzi ezkontza-aukera eta eskubide horrek. Horra arrazoi nagusia. Lurrun-makinariari hauspoa ematen, ederki asmatu dute homosexualak. Erantzun bat eman behar izan diote administrazioek *arazoari* eta, nire irudiko, justiziaren etikatik nahiz bake sozialetik izango du nahikoa, ezkondu daitezkeelako erabaki berri xamar horrek.

Leihotik sartuta, txantxangorri arin bat dabilkit idazmakinarekin tekletan jolasten, ironiaz xuxurlatzen dit: baimena eduki ala ez, ez garai zaharretan ezta orain ere, batzuek, homosexual izan edo heterosexual izan, ez dute urrats bakar bat bera ere egin ezkontzeko.

* * *

Txolinkerien trenari buruzko arreta eskatzen zenuen lehengoan, Juanjo. Liburuez. Arropaz. Bidaiez... Txolinkeria deitu zenion bizitzari; gai sakontzat joaz filosofia eta etika. Buztan luzea du azeriak.

Xahar baten pasadizoia etorri zait burura zureak irakurrita. Amonarriek kontatua izango du jada, seguruenik.

Lanerako trenaren zain, geltokiko tabernan omen zioen hark harro:

– Bakea lortu dugu etxean. Azkenean, lanak banatu ditugu emazteak eta biok. Gaurtik aurrera, neuk hartzen ditut erabaki garrantzitsuak. Besteak, hark.

Irrikaz erregutu zioten lankideek, esateko zeintzuk ziren erabaki handi eta garrantzitsuak horiek. “Hara –jakinarazi zien–, San Mamesera noiz joan eta hauteskundeetan botoa nori eman, neuk erabakitzen dut”.

Eta, zeintzuk dira, bada, emaztearen erabakiak? “Eguneroko txolinkeria arrunt horiek... non bizi, zer afaldu, bankuaren mailegua nola negoziatu, umeak zein eskolatarari bidali, oporretan nora joan, semearen biolina, alabaren ingelesa...”.

Zer ordutan dator hurrengo tren? ■

Baimena eduki ala ez, ez garai zaharretan ezta orain ere, batzuek, homosexual izan heterosexual izan, ez dute urrats bakar bat bera ere egin ezkontzeko